



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/02/16

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onetsi Bizkaiak Burgosen daukan enklabea zedarritzeko izapideak hastea

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onetsi gaur goizean Arturo Aldecoa Talde Mistoko batzordekideak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena, Urduñako Udalagaz batera, “Bizkaiak Burgosen daukan 'Cerca de Villaño' izeneko enklabea zedarritzeko behar dan informazioa eskatzeko eta leku hori bere kartografian eta bere arautegiaren eta jarduketan aplikazio eremuan sartzeko”. Ekimenak proposamena aurkeztu dauen batzordekidearen aldeko botoa baino ez dau lortu. Talde Popularra eta Podemos abstenidu egin dira eta Euskal Sozialistak, EH Bildu eta Euzko Abertzaleak taldeek kontrako botoa emon dabe Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean.

Talde Mistoko ordezkariak, “Burgoseko San Martín de Losa udalerrian dagon eta, XV. gizalditik, gitxienez, Urduñako uriko jurisdikzio pribadua dan lurra” aitatu dau. “Bertako biztanleek Bizkaiko Foruaren pribilegioak izan ditue beti, baina gaur egun *linboan* dago, eta bere mugak ez dira ezagutzen”. Aldecoak enklabearen plano topografikoa egitea eta bertako kartografia Urduñako Udaleko kartografian sartzea proponidu dau.

Talde gehienek txalotu egin dabe Talde Mistoko batzordekideak enklabe horren inguruan egin dauen ikerketa lana, baina bata be ez da bere proposamenaren alde agertu. Ia guztiek azpimarratu dabe oso balio eskasa eta tamainu txikia daukala, eta gaur egun ez dala inor bertan bizi, eta baita gestino horreek kostua izango leukela eta, “ezelango gatazkarik ez dagon lekuan gatazkea sortzeko” arriskua dagola. Agerian geratu da, baita be, lurra zedarritzeko beharrak martxan dagozala, eta Foru Aldundiak ez daukala eskumenik arlo horretan, behar horreek, inplikauta dagozan erakundeen arteko akordio barik bukatzen badira.

Esku-hartzeko bigarren txandan, Talde Mistoko bozeroaleak, enklabean dagozan lurren tributazioaren kontua oraindino konpondu barik dagola azpimarratu dau, eta Jon Andoni Atutxa Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak ironiaz erantzun deutso, “ez dot uste orain arte Sierra Salvadan paradisu fiskal txikirik euki dogunik”, esanez.

ZIGORRA ALDUNDIKO SU-HILTZAILE BATI

Batzordearen eguneko gai zerrendako bigarren puntua, Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andrea Batzordera etorteko eskariagaz egon da erlazionauta, Aldundiko suhiltzaile bati jarri jakon zigorraren inguruko azalpenak emoteko. Eskaria Neskutz Rodríguez Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak aurkeztu dau, eta Markina-Xemeingo parkeko su-hiltzaile bati, horretarako gaituta ez egoala adierazoz norbanakoa babesteko 3. mailako ekipoaren (NBE-EPI) maniobra bat egiteari uko egin izanagaitik, 10 eguneko enplegu eta soldata zigorra jarri izanaren inguruan prentsan agertu zan albisteari buruzkoa izan da.

Podemos taldeko ordezkariak adierazo dauenez, gailu barria da, eta funtzionarioak ez dau horretarako prestakuntza egokia jaso. Horrek, bere eta beste pertsona batzuen segurtasuna arriskuan jartea eragin daike, eta bere kexea agertu dau, “prebentzinozko neurriak ezarri



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

beharrean, bere beharra behar dan moduan egiten dauena zigortzen dalako eta, aldi berean, suhiltzaileen prestakuntza oztopatzen dalako”:

Foru Diputatua “harrituta” agertu da agerraldi horren aurrean, eta “ezelango konnotazino politikorik” ez dauen gaia dala azpimarratu dau, “funtzionario independenteek izapidetutakoa, berme guztiakaz, falta larri moduan ulertutakoa eta horregaz bat etorrita zigortutakoa, une honetan ebazpenaren zain dagona, zigorra jaso dauenak berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu dauelako”. Talde Mistoak eta EH Bilduk, zigorra jaso dauen funtzionarioaren errazoiak ondo ulertzen dituela adierazo dabe, baina gainerako taldeak Aldundiaren jarreraren alde agertu dira, ezelango konnotazino politikorik ez daukan eta administrazioan ohikoa dan prozedurea dala esanez, eta horretan Batzar Nagusiek ez daukiela eskumenik azpimarratuz.

Batzordearen eguneko gai zerrendea, Arantza Urkaregi EH Bilduko batzordekideak, Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dituan Administraziozko Azpi-kontratazioetan gizarte, lan eta ingurumen arloetako arautegia beteten ete dan galdetuz Ibone Bengoetxeari egin deuslan erantzun-eskeagaz osatu da. 2017ko zemendian, foru erakundeak arreta goiztiarreko zerbitzu publikoen prestaziorako kontzertuaren zerbitzu publikoen kudeaketa kontratua esleitu eban, eta erantzun-eskea, zerbitzu bera eskintzen daben pertsonen arteko lan baldintzatan eta soldatatan diskriminaziorik ez egotearen bermearen gainekoa izan da, kontuan izanda aplikauko jakezan hitzarmen kolektiboak desbardinak izango dirala.

Foru Diputatua pozik agertu da Urkaregi batzordekideak erakutsi dauen ardureagaz, baina, azaldu dauenez, Bizkaiko Aldundiak berak gauza bera adierazoz sartu eban klausulak Estaduko Abogadutzaren errekurtsioa jaso eban, eta epaitegiek indar barik itzi eben. Hori dala eta, une honetan indarrean dagon arautegiak legezko agindua beteten dau, eta Foru Erakundeak ez dauka ezer egiterik horren inguruan. Bengoetxeak azaldu dauenez, alkarren arteko gogoeta prozesua jarri da martxan sindikatuakaz, eta urte honetako martian beste lege bat sartuko dala indarrean aurreratu dau. “Soldata guztiak bardinak izatea bermatzen ez dauen arren, gitxienez soldaten zorua ezarteko aukera emoten dau”.

NOTA DE PRENSA
16/02/18

Las Juntas Generales de Bizkaia rechazan iniciar trámites para delimitar un enclave vizcaíno en Burgos

Las Juntas Generales de Bizkaia han rechazado esta mañana una proposición No de Norma del apoderado del Grupo Mixto Arturo Aldecoa dirigida a “recabar, en contacto con el Ayuntamiento de Orduña, la información necesaria para establecer los límites del enclave de Bizkaia en Burgos llamado la Cerca de Villano, e incorporar el mismo a su cartografía y al ámbito de aplicación de su normativa y actuaciones”. La iniciativa ha contado con el único voto a favor del proponente, la abstención de Grupo Popular y Podemos, y el voto en contra de Socialistas Vascos, EH Bildu y Nacionalistas Vascos, en la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia.

El representante del Grupo Mixto hacía referencia a “un terreno emplazado en el municipio



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

burgalés de San Martín de Losa que es, al menos desde el siglo XV, jurisdicción privativa de la ciudad de Orduña y cuyos moradores han gozado de las prerrogativas del Fuero de Bizkaia, pero que se encuentra hoy en el *limbo* y cuyos límites se desconocen”. Aldecoa proponía realizar el plano topográfico del enclave a incorporar su cartografía a la del Ayuntamiento de Orduña.

La mayoría de los grupos han alabado el trabajo de investigación sobre el enclave llevado a cabo por el juntero del Grupo Mixto, pero ninguno ha apoyado finalmente su propuesta. Casi todos han recalcado su escaso valor, pequeño tamaño y el hecho de que esté actualmente deshabitado, así como el posible coste de las gestiones y la posibilidad de “generar un conflicto donde no existe”. También se han puesto de manifiesto el hecho de que están en marcha las tareas de delimitación del terreno y la falta de competencias de la Diputación Foral en este ámbito, en el caso de que estos trabajos concluyan sin acuerdo entre las instancias implicadas.

En su segundo turno de intervención, el apoderado del grupo Mixto ha incidido en el hecho de que está pendiente resolver acerca de la tributación de los terrenos incluidos en el enclave, un argumento que ha sido contestado irónicamente por el portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, Jon Andoni Atutxa, al señalar que “no creo que hasta la fecha hayamos tenido un pequeño paraíso fiscal en Sierra Salvada”.

SANCIÓN A UN BOMBERO DE LA DIPUTACIÓN

Un segundo punto del orden del día de la Comisión ha tenido que ver con una solicitud de comparecencia de la Diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, para dar explicaciones sobre la sanción a un bombero de la Diputación. La solicitud había sido presentada por la juntera de Podemos Bizkaia Neskutz Rodríguez, y se refería a una noticia publicada en la prensa en torno a la sanción de 10 días de empleo y sueldo a un bombero del parque de Markina-Xemein por negarse a impartir una maniobra de un Equipo de Protección Individual (EPI) para la que aducía carecer de formación adecuada.

La representante de Podemos ha señalado que se trataba de un nuevo dispositivo para el que el funcionario no había recibido formación adecuada, lo que podía poner en riesgo su seguridad y la de otras personas, y se ha quejado de que “en vez de poner medidas preventivas se sancione a quien cumple con su trabajo, al tiempo que se niega formación a los bomberos”.

La Diputada Foral se ha mostrado “sorprendida” por esta solicitud de comparecencia, y ha recalcado que se trata de “un asunto sin connotaciones políticas, tramitado por funcionarios independientes con todas las garantías legales, calificado como una falta grave y sancionado en consonancia, y que en este momento se encuentra pendiente de resolución tras la presentación de un recurso de reposición por la persona afectada”. Grupo Mixto y EH Bildu han mostrado comprensión hacia las razones del funcionario sancionado, mientras que el resto de los grupos han apoyado la postura de la Diputación, aseverando que se trata de un procedimiento administrativo habitual, sin connotaciones políticas y en el que las Juntas Generales no tienen competencia.

El orden del día de la Comisión se ha completado con una pregunta formulada a Ibone Bengoetxea por la juntera de EH Bildu Arantza Urkaregi sobre el cumplimiento de la normativa social, laboral y medioambiental en subcontrataciones administrativas por parte de la Diputación Foral de Bizkaia. En noviembre de 2017, el ente foral adjudicó el contrato de gestión de servicios públicos de concierto para la prestación del servicio público de atención



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

temprana, y la pregunta se ha dirigido a la garantía de que no existan discriminaciones en las condiciones laborales y salarios entre personas que prestan un mismo servicio, dado que se les van a aplicar diferentes convenios colectivos.

La Diputada Foral ha mostrado su simpatía con la preocupación puesta de manifiesto por la juntera Urkaregi, pero ha explicado que una cláusula introducida por la propia Diputación de Bizkaia en este mismo sentido fue recurrida por la Abogacía del Estado y anulada por los tribunales, por lo que la actual normativa responde a un imperativo legal ante el que el ente foral carece de margen de intervención. Bengoetxea ha explicado que se ha puesto en marcha un proceso de reflexión conjunta con los sindicatos, y ha añadido que en marzo de este año entrará en vigor una nueva ley que “aunque no garantiza que todos los salarios sean iguales, sí permite establecer un suelo salarial”.